

## **EH Bilduren udal-gobernuaren kudeaketa desegokia eta gardentasun eza azaleratu ditu berriz ere Oñatiko EAJ-PNVk**

- **Azaleratu du Azkoagainetik Lezesarri auzorako oinezko bidea egiteko aurkeztutako proiektua eta aurrekontua ez direla errealak, ez dituztelako jasotzen egin beharreko desjabetze- eta argiteria- hobekuntzaren proiektuak.**
- **Bide beretik, 2020ko udal-aurrekontuaren soberakina zertarako bideratuko den oraindik argitu eta azaldu ez duela ere salatu du, baita Legealdirako Finantza-Plana egin ez izana ere, eta, ondorioz, kudeaketa desegokian eta inprobisatua murgilduta egotea.**

Oñatiko EAJ-PNVk, herri- eta udal-ordezkarri den heinean, eta herritarrak jakinaren gainean edukitzeko ardura eta konpromisoa duen heinean, EH Bilduren udal-gobernuaren kudeaketa desegokia eta gardentasun eza azaleratu ditu berriz ere.

Batetik, EAJren udal-taldea kezkatuta dago EH Bilduren udal gobernuak azken aste zein hilabeteetan hartu diren erabaki batzuekin. Esate baterako, irailaren 27ko Osoko Bilkuran, Azkoagainetik Lezesarri auzorako oinezko bidea egiteko proiektua publikokotzat deklaratzeko onartu zuen (aurrekontua, 165.000 euro). Hala ere, jeltzaleen iritziz “proiektu zein aurrekontu horiek ez dira errealak, ez baitituzte jasotzen egin beharreko desjabetzearen eta argiteria-hobekuntzaren aurrekontuak”. Ildo horretatik, behin proiektuaren lanketa eta aurrekontua egiten hasita, udal-gobernuak prozedura behar bezala lotu beharko lukeela adierazi du EAJK, “proiektu eta aurrekontu faltsurik aurkeztu eta onartu gabe”.

Bestalde, jeltzaleek azpimarratu dute EH Bilduren udal-gobernuak ez duela argitu oraindik zertan inbertituko den 2021eko martxoko udal-soberakina (3 milioi). “Soberakin hori erabiltzeko gure proposamenak aspaldi aurkeztu genizkion gobernuari, baina ez ditu aintzat hartu, eta adierazi digu ezin duela hartu erabakirik Zubikoa kiroldegiko lanak amaitu arte”, azaldu dute jeltzaleek. Alabaina, bukatuta daude kiroldegiko lanok, eta, are gehiago, “dagoeneko 2022ko aurrekontuak lantzeko garaian gaude eta oraindik ez dakigu udal-soberakina zertara bideratuko den. EH Bilduren gardentasun falta nagusi, berriz ere”, gehitu du EAJK.

Horrez gain, Legealdiko Finantza-Plana egin ez izana leporatu diote jeltzaleek udal-gobernuari. “Legealdia hasi zenean, plana idazteko eskatu genion EH Bilduren udal-gobernuari, 5 urterako aurreikuspena izateko. Ez du, ordea, finantza-planik egin eta, ondorioz, kudeaketa inprobisatua murgilduta dago”, adierazi du EAJren udal-taldeak. “Oñatiko EAJ-PNVren ardura eta erantzukizuna da, herri- eta udal-ordezkarri gisa, EH Bilduren udal-gobernuaren kudeaketari jarraipen zorrotza eta zuzena egitea, eta oñatiarrak jakinaren gainean jartzea; haiek dira, hain zuten, kudeaketa inprobisatu desegokiaren eta gardentasun ezaren kaltetuak”, zehaztu dute jeltzaleek.

Amaitzeko, jeltzaleak oso arduratuta daude Zubikoa kiroldegiko obrek Oñatiko udalari ekarri dioten zorpetze-mailarekin zein etorkizuneko inbertsio-gabeziarekin. Jakina, herriaren eta herritarren kaltetan. “Jeltzaleok kalitatezko eta punta-puntako kirolgune hori babestu dugu, nahiz eta, gure ustean, Zubikoak ez ditugu asetzen Oñatiko herriaren eta oñatiarren gaur egungo kirol- eta aisialdi-azpiegitura behar guztiak. “Oñatiko udalak ia 9 milioi inbertitu ditu Zubikoan, eta, hori gutxi balitz, lanak aurrera eramateko, 10-12 urtean amortizatu beharreko 11 milioiko kreditua eskatu behar izan du Oñatiko udalak”, argitu dute jeltzaleek. “Hainbeste milioiko kreditua ordaintzeak zama handia eragingo dio udalari, eta, besteak beste, gaur egun inbertsioak egiteko duen gaitasuna nabarmen murriztuko dio. Ondorioz, Oñatiko udalak askoz ere diru gutxiago izango du, hurrengo 10-12 urteetan zehar, Oñatin zein oñatiarren inbertitzeko”, azaldu dute jeltzaleek.

## **EAJ-PNV de Oñati ratifica la gestión inadecuada y la falta de transparencia del gobierno municipal de EH Bildu**

- **Denuncia que tanto el proyecto como el presupuesto presentado para el vial peatonal que irá desde Azkoagain al barrio de Lezesarri no son reales porque no recoge los proyectos de expropiación y mejora del alumbrado a realizar en dicha construcción.**
- **Asimismo, denuncia también que el gobierno municipal no haya aclarado aún en qué va a invertir el excedente de marzo y que tampoco haya elaborado el Plan Financiero para la legislatura, lo cual hace que esté inmerso en una gestión inadecuada y basada en la improvisación.**

EAJ-PNV de Oñati, en su labor de representante municipal, y atendiendo a la responsabilidad y compromiso de mantener informada a la ciudadanía, ha vuelto a poner sobre la mesa y a ratificar la inadecuada gestión y la falta de transparencia del gobierno municipal de EH Bildu.

Por un lado, el grupo municipal jeltzale ha mostrado su preocupación por algunas decisiones que ha tomado el equipo de gobierno durante las últimas semanas y meses. Por ejemplo, en el Pleno del 27 de septiembre, el gobierno de EH Bildu aprobó como proyecto de interés social el proyecto de construcción del vial peatonal desde Azkoagain al barrio de Lezesarri. El presupuesto de este proyecto es de 165.000 euros. No obstante, los jeltzales opinan que "ni el proyecto ni el presupuesto son reales, ya que no recoge los presupuestos de expropiación y mejora del alumbrado a realizar en la construcción del vial", explican. En este sentido, el PNV ha señalado que, una vez iniciada la elaboración y presupuesto del proyecto, el gobierno municipal debería realizar correctamente el procedimiento "sin presentar ni aprobar falsos proyectos y presupuestos".

Por otra parte, las y los jeltzales insisten en que el gobierno municipal de EH Bildu no ha aclarado aún en qué se invertirá el excedente municipal de marzo de 2021, que asciende a 3 millones. "Hace tiempo que presentamos nuestras propuestas para utilizar ese excedente, pero el gobierno local no las ha tenido en cuenta y nos ha recalado que no puede tomar decisiones hasta que finalicen las obras del polideportivo" explican. Sin embargo, las obras del polideportivo ya están finalizadas, "más aún, estamos en periodo de trabajar los presupuestos de 2022 y aún no sabemos nada de excedente municipal. Vuelve a haber, por tanto, falta de transparencia por parte de EH Bildu", ha añadido el PNV.

Además de ello, EAJ-PNV de Oñati acusa al gobierno municipal de no haber elaborado el Plan Financiero de la Legislatura. "Al inicio de la legislatura pedimos al equipo de gobierno de EH Bildu que redactara dicho plan para tener una previsión a 5 años. Sin embargo, no lo ha hecho y, en consecuencia de ello, está inmerso en una gestión inadecuada, basada en la improvisación", señala el grupo municipal del PNV. "Como representante municipal, es responsabilidad de EAJ-PNV de Oñati hacer un estricto y riguroso seguimiento de la gestión del gobierno municipal e informar sobre ello a las y los oñatiarras, que son, al fin y al cabo, las y los principales perjudicados de la gestión inadecuada, la improvisación y la falta de transparencia de EH Bildu", subraya el equipo jeltzales.

Por último, EAJ-PNV de Oñati muestra su preocupación por el nivel de endeudamiento que las obras del polideportivo han supuesto para el Ayuntamiento oñatiarra y por las repercusiones que ello tendrá, en el futuro, en la capacidad de inversión del Consistorio. Todo ello, por supuesto, en detrimento del municipio y su ciudadanía. "A pesar de que EAJ-PNV de Oñati también ha apoyado la construcción de una zona deportiva puntera y de calidad, no podemos olvidar que el Ayuntamiento ha invertido casi 9 millones en el polideportivo y que, aun así, no ha cubierto las necesidades de infraestructuras deportivas del municipio. Y por si esto fuera poco, además, ha tenido que pedir un crédito de 11 millones, a amortizar en 10-12 años, para llevar a cabo las obras", aclaran las y los jeltzales. "El pago de un crédito tan elevado

supondrá una importante carga para el Ayuntamiento, que verá reducida considerablemente su capacidad de inversión actual. En consecuencia, el Ayuntamiento de Oñati tendrá mucho menos dinero para invertir, durante 10-12 años, tanto en Oñati como en los oñatiarras ", han concluido desde EAJ-PNV de Oñati.